

# IRABAZI-ITURRIAK

Gure diru-sarreren iturri nagusienak, gure programaren salmentatik (aktiboen salmenta) lortuko ditugu eta programak prezio finkoa izango du. Prezio hori kostuen arabera %20ko marjin batekin kalkulatuko dugu. Urtero inflazioaren arabera aldatuko da.

Ordainketa egiteko bezeroei finantza erraztasunak eskainiko dizkiegu. Hilabeteka, hiruhileka edo urteka ordaindu dezaketelarik.

Diru laguntzak eskatzeko aukerak aztertuko ditugu gure ideia gizartea erantzukizunean oinarriturik dagoelako eta osasun arloan onurak lortzen dituelako.

